




Afiliazioak maximo historikoetan jarraitzen du

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak




Maiatzean, Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,3 handitu zen aurreko urteko hil beraren aldean. Horrela, seriean maximo historiko berri bat finkatu da, guztira 1.042.680 afiliatu lortu baitira. Sexuen araberako bila-kaerari dagokionez, emakumeen afiliazioa %1,3 hazi zen urte artean, eta gizonena, berriz, % ,4.

Iturria: Gizarte Segurantza.

Langabezia erregistratua %0,9 jaitsi zen maiatzean

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak




Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %0,9 murriztu zen maiatzean, urte arteko tasan. Balio absolutuetan, langabeen kopurua 103.733ra iritsi zen, 2008tik maiatzean izandako erregistrorik txikiena. Urte arteko datuei dagokionez, langabezia gehiago jaitsi zen gizonen artean (-%1,6) emakumeen artean baino (-%0,4).

Iturria: Lanbide.



Euskadiko industria jarduera gehitu egin da apirilean

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko apirila. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, **Euskadiko industriaren ekoizpena %1,9 hazi zen apirilean, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.** Martxoan energia izan zen hazkundearen eragilea, baina orain %0,9 jaitsi da urte batetik bestera. Ekipo ondasunek (%6,2) eta kontsumo ondasunek (%3,0) eutsi diote hazkundeari, eta horrek baieztatzeke dagoen industriaren suspertzea ekar lezake.

BPG %2,2 hazi zen lehen hiruhilekoan

Euskadiko barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen arabera, Euskadiko ekonomia %2,2 hazi zen 2026ko lehen hiruhilekoan aurreko urteko hazkunde ildoari eutsiz Barneeskariaren sendotasunak, urte arteko %3,5eko hazkundearekin, kanposektorearen ahultasuna konpentsatzen jarraitzen du. Eskaintzaren aldetik, zerbitzuak dira (%2,9) sektorerik dinamikoena.